# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

### Zk-5150

225/1997 DEKRETUA, urriaren 7koa, ekonomia-gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzen duen Dekretua aldatzen duena.

Apirilaren 15eko 249/1995 Dekretuz sortu zen ekonomia-gaietarako Ordezko Batzordea. 2. ataleko 1. idazatian erakunde horretako kideak finkatzen ziren. Une honetan komenigarritzat jotzen da berorren osakera aldatzea eta, ondorioz, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua berorretako kide izango litzateke eta Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren ordezkotza egingo luke.

Ondorioz, lehendakariordearen proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko urriaren 7an egin zuen bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Ekonomia-gaietarako Ordezko Batzordea sortu eta arautzen duen apirilaren 25eko 249/1995 Dekretuko 2. ataleko 1. idazatia aldatu egiten da. Eta, ondorioz, honako era honetan idatzita gelditzen da:

«*2. atala.*– Osakera.

1.– Honako kide hauek izango dira ekonomia-gaietarako Ordezko Batzordea osatuko dutenak:

a) Jaurlaritzaren lehendakaria. Bera izango da buru.

b) Jaurlaritzaren lehendakariordea eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburua. Lehendakaria bileretara agertu ez dadin kasuetan, lehendakariordeak hartuko du batzordearen lehendakaritza.

c) Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua.

d) Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua.

e) Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburua.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko urriaren 7an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Jaurlaritzaren lehendakariordea,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

# Disposiciones Generales

## VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-5150

DECRETO 225/1997, de 7 de octubre, de modificación del Decreto por el que se crea y regula la Comisión Delegada para Asuntos Económicos.

La Comisión Delegada para Asuntos Económicos se creó por el Decreto 249/1995, de 25 de abril. En apartado 1 del artículo 2 se determinaba su composición. En el momento actual se considera conveniente modificar dicha composición, incorporando como miembro de la Comisión a la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo en sustitución del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

Por ello, a propuesta del Vicepresidente, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión del día 7 de octubre de 1997,

DISPONGO:

*Articulo único.*– Se modifica el párrafo 1 del artículo 2 del Decreto 249/1995, de 25 de abril, por el se crea la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, que queda redactado de la forma siguiente:

«*Artículo 2.*– Composición.

1.– La Comisión Delegada para Asuntos Económicos estará integrada por los siguientes miembros:

a) El Lehendakari que la presidirá.

b) El Vicepresidente del Gobierno y Consejero de Hacienda y Administración Pública. En los casos de no asistencia del Lehendakari será el Vicepresidente quien ostentará la presidencia de la Comisión.

c) El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca.

d) El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

e) La Consejera de Comercio, Consumo y Turismo.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Vicepresidente del Gobierno,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.